



EUORÉGIÓN
EUROESKUALDEA
EURORREGIÓN

NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITAÑA • EUSKADI • NAVARRA

Identitate berria




● Identitate berria

Identitate bisual berriaren logotipoak zubiak eta loturak eraikitzeko nahia agertzen du, sare dinamikoa sortuz, dimentsio berriak bilatuz, ezagutzaren eta aitortzaren bideak luzatzeko.

Arkuek proiektu guztiak uzartzeko xedea erakusten dute. Herritarrak elkarrengana hurbiltzeko, erdigunea non nahi izanik, Hendaian, Iruñean, Donostian, Bordelen, Gasteizen zein Bidarten... eremuaren mugak ekimen eta aurrerapenez zedarriztatuz. Puntuak mugikortasuna erakusten du, dena mugitzen baita: gaitasunen, zalantzen eta praktika onen partekatze elkarlaguna.

Lurraldeko puntu horiek dute Euroeskualdea osatzen.




● Webgune berria, erronka berriak

Lurraldeko eragile sozio-ekonomikoekin Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen erronka berriei aurre egiteko lankidetzak berriak sortuz, webgune berria argitaratuko dugu urte bukaera aitzin.

Gure asmoa: informaziotik elkarrekintzara pasatzea. Webgunea tresna praktikoa izanen da, bai herritarrentzat jadanik indarrean diren dispositibo bezala baliatzeko, bai proiektu bultzatzaile eta lankideentzat Euroeskualdearen laguntza aurkitzeko, (proiektu ingeniariak, gaitasunen bilatzea, diruztatzea...).

Ataria alaitz jenderi zabalik izanen da, proiektu estrategikoekin zer ikustekorik duten proiektuak eraikitzeko datuak arki ditzaten. Honakoak dira plan estrategikoaren helburuak:

- Euroeskualdeko herritartasuna **azkartzea**
- Ezagutza eta berrikuntzaren ekonomia **garatzea**
- Mugikortasuna ahalbidetzea eta ingurumena **zaintzea**



Partekatzea, Berritzea, Zaintzea, hauek dira Euroeskualdearen ekintzetan elkarriketa borondatea adierazten duten hiru aditzak. Eskualdeen eta biztanleen arteko elkarriketa, nor bere hizkuntzan, elkar entzunez eta elkar ulertuz.



EUROREGION EUROESKUALDEA EURORREGIÓN

NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA

Photos © Shutterstock - Fred de Baillencourt

18 rue Leku Eder
ZI des Joncaux
64700 Hendaye



euroregion-naen.eu



Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

LLET Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea
AECT Euroregion Aquitania-Euskadi-Navarra
GECT Euroregion Aquitaine-Euskadi-Navarre